

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak Etxarri-Aranazko Udalari eskaera egin dio independentziari buruzko herri-kontsulta egitea bertan behera utz dezan

Udalak hamabost egun ditu udalbatzak maiatzaren 10ean hartutako erabakia bertan behera uzteko

Lunes, 27 de mayo de 2013

Nafarroako Gobernuak Etxarri-Aranazko Udalari eskaera egin dio 2013ko maiatzaren 10ean udalbatzak hartutako erabakia bertan behera utz dezan. Erabaki hori toki-eremuko herri-kontsulta bati buruzkoa da eta herritar-talde batek sustatu du honako galdera honekin: "Etxarri-Aranatz Euskal Herriko udalerrri modura Europako estatu independente berri baten barnean sartzearekin ados al zaude?". Etxarri-Aranazko Udalak hamabost eguneko epea du udalbatzaren erabaki hori bertan behera utz dezan.

Gobernuaren erabakia dator herri-kontsulta horrek, inolako toki-eskumenekin bat ez etortzeaz gain, Estatuarena soilik den eskumena gaudituko zuelako, nazioarteko harremanak hain zuzen, eta Konstituzioaren 179.3 artikuluan jasota dagoena.

Halaber, Nafarroako Gobernuak iritzi du deialdiak ordenamendu juridikoaren aurkako elementuak dituela, esaterako: Etxarri-Aranatz udalerrria Euskal Herriaren barne dagoela esatea, edo "Europako estatu independente berri" baten barnean sartzeko aipamena, ez duena identifikatzen eta, izatekotan, Magna Cartaren 2. artikuluan jasotako Espainiako Nazioaren unitate-printzipioaren aurka doana.

Gobernuak gogora ekarri du Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioari dagokiola Nafarroako toki-erakundeen jarduketan legezketasun-kontrola gauzatzea Toki Administrazioaren 6/1990 Foru Legearen (uztailaren 2koa) ezarritako baldintzetan; horrenbestez, egintza edo erabaki batek Foru Komunitatearen eskumeneko gaietan ordenamendu juridikoa urratzen duela irizten duenean toki-erakundeari eskaera egin ahalko dio baliogabe dezan edo zuzenean aurka egiteko administrazioarekiko auzi-eskumenaren aurrean.

Herri-kontsultei aplikatu beharreko araudia

Toki-izaerako herri-kontsultak egitea apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, Toki Erregimeneko Oinarriari buruzkoen, 71. artikuluan aurreikusita dago, eta eskumen hori dagoenean autonomia erkidegoko legeriara jotzen da.

Bestalde, uztailaren 2ko 6/1990 Legearen, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoaren, 96. artikulua herri-kontsulta egiteko aukera ematen du, herritarren interesetarako garrantzi handikoak diren udalaren beraren eta toki-izaerako eskumeneko gaietan. Gainera, erreferenduma

egiten uzten ez den kasuetan herri-kontsultak ezin direla egin ezartzen du.

Azkenik, urriaren 28ko 27/2002 Foru Legeak, toki-eremuko herri-kontsultak arautzen dituenak, kontsulta-prozesuen bide formalak eta inpartzialtasun, gardentasun nahiz objektibitatea bermatzen dituzten organoak arautzen ditu.